

638/2020 EBAZPENA, 2020ko maiatzaren 18koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearena, zeinaren bidez erabakitzen baita goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa emateko funtsezko prozedura administratibo jakin batzuk berrabiatzea eta hastea.

463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian (2020ko martxoaren 14koa, alarma-egoera deklaratu zuena) erabaki zen sektore publikoko erakundeek prozedurak izapidetzeko terminoak bertan behera uztea eta epeak etetea, besteak beste Nafarroako Unibertsitate Publikoarenak (2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.2 artikulua), eta deklarazio hark indarra galtzen zuenean hasiko zela berriz epeen kontaketa.

Xedapen gehigarri horrek espresuki onartzen du salbuespenak egiten ahal zaizkiola prozeduren terminoak automatikoki bertan behera uzteko arau orokorrari eta prozedura administratiboek epeak automatikoki etetekoari. Zehazki, honako hau dio 4. apartatuak horri buruz 2020ko martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren erredakzioan: errege dekretu hau indarrean sartzen denetik, sektore publikoko erakundeek zilegi dute arrazoiak emanez erabakitzea jarraipena emanen dietela alarma-egoera justifikatzen duten gertaerekin lotura estua duten egoeren inguruko prozedura administratiboek, bai eta interes orokorra babesteko edo zerbitzuen oinarritzko funtzionamendurako ezinbestekoak direnei ere.

463/2020 Errege Dekretua (2020ko martxoaren 14koa) luzatu egin da behin baino gehiagotan, 2020ko maiatzaren 24koa da onetsi den azken luzapena (2020ko maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretuaren bidez), eta beste hilabetez luzatuko da itxura guztien arabera. Alarma-egoeraren deklarazioa onestean, geldiarazi egin ziren egun horren aurretik hasitako prozedura administratiboak, eta ezinezkoa izan zen Unibertsitateak martxotik aurrera urtero egiten dituen prozedurei hasiera ematea. Azken horiek ebaztea eta tramitatzea beharrezkoa da, Unibertsitatean matrikulatu nahi duten interesdunen eskubideak babesteko ez ezik, hezkuntza-zerbitzua emateak berezkoa duen interes publikoa babesteko ere; izan ere, etenaldiak ondorio larriak ditu unibertsitateko ikasketen 2020-2021 ikasturteko antolamenduan.

Honako hauek dira irakaskuntzen arloan etenda gelditu ziren prozedura batzuk: matrikulari espresuki uko egiteko prozedura aurtengo ikasturtean unibertsitateko ikasketetan matrikulatuak dauden ikasleentzat; laster hasiko den ebaluazioaldia baino lehen ebatzi behar da prozedura hori; Unibertsitatean sartzeko prozedurak, 25, 40 eta 45 urtetik gorako ikasleentzat, eta 2020/2021 ikasturterako; Unibertsitatez edo ikasketaz aldatu eta gero ikasle espainiar zein atzerritarrek 2020/2021 ikasturtean onartzeko prozedura.

Masterreko ikasketa ofizialetan sartzeko aurreinskripzio prozedura; ezinbestekoa da prozedura hori berriz abiatzea matrikula egin ahal izateko eta prozesua ebazteko, azken hori beharrezkoa baita 2020-2021 ikasturteari ekiteko. Egoera horretan daude, halaber, Talentua Erakartzeko Beken deialdiak eta Doktoretzarako aukera ematen duten masterreko ikasketa ofizialak egiteko 8 laguntzaren deialdia, “Asociación Universitaria Iberoamericana de Posgrado (AUIP)” delakoan afiliatutako unibertsitate latinoamerikarretako ikasleentzat.

Alarma-egoera deklaratu baino lehen egin ziren bi laguntza horien deialdiak, eta ebazpena jakiteko zain daude interesdunak 2020-2021 ikasturtean masterreko ikasketa ofizialetan matrikulatu ahal izateko.

Ikerketaren arloan, prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileak kontratatzeke deialdia eten zen, eta azken ebazpenaren zain dago; 2020ko irailaren 1ean hasiko da ikertzaileen jarduera.

Berriz abiarazi behar dira aipatutako prozedura horiek, eta urgentziazkoa da, baita ere, datorren ikasturtean hezkuntza-zerbitzua emanen dela ziurtatzeko funtsezkoak eta ezinbestekoak diren prozedura administratiboen deialdia egitea; izan ere, prozedura horiek ezin dira gehiago atzeratu, bestela oso zaila izanen da programatutako egutegi akademikoan hastea Unibertsitateko irakaskuntza, eta horrek kalte handia eraginen die Unibertsitatean onartuak izateko eta matrikula egiteko zain dauden ikasleen interesei.

Horrenbestez, honako prozedura administratibo hauek abiarazi behar dira: Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazio probetan inkripzioa egiteko prozedura (heldu den ekainean eginen dira).

Giza Baliabideei dagokienez, batetik, deialdia egin behar da irakasle eta ikertzaileak kontratatzeke lehiaketa arrunterako (urtero egiten dena), heldu den 2020-2021 ikasturtean irakasle ari daitezen; eta, bestetik, administrazioko eta zerbitzuetako langileak kontratatzeke deialdia era bai denboraldi horretako premia urgentziazkoei erantzuteko.

Ikerketaren arloan, ikerketako laborategiak irekitzeko baimena eman du 2020ko maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduak, eta, beraz, berriz ekin zaio ikerketa-entitateek esleitutako ikerketa-proiektuetako jarduerari. Kasu batzuetan, langile zientifikoak kontratatzeke konpromisoa dakarte berekin proiektu horiek, eta luzatu gabe egin behar dira, bestela ezin izanen dira bete proiektuen deialdietan ezarritako betebeharrak. Horretarako, zientzialariak hautatzeko prozesu publikoak tramitatzen hasi beharra dago. Ildo beretik, etenda gelditu ziren ikerketetako jakintza transferitzeko kontratuetan jasotako betebeharrak, eta, orain, berriz abian jartzeko, eta kasu batzuetan ezarritako konpromisoak betetzeko, ikertzaileak hautatzeko prozesuen deialdia egin behar da.

Aipatutako prozedura administratibo guztiak, bai berrabiarazi nahi direnak bai hasi nahi direnak, aurreko urteetan ere tramitatzen ziren, bide telematikoa, Unibertsitatearen egoitza elektronikoaren bidez. Beraz, prozedura ez denez berrikuntza bat, eta haren tramitazioak ez dakarrenez unibertsitate-egoitzan egon beharrik, ez zaie inolako kalterik egiten interesdunei.

Beraz, Zerbitzu Juridikoak txostena eginik, 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 4. apartatuan aurreikusitako salbuespen egoera gertatzen da orain (2020ko martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak emandako erredakzioan), eta, hori dela-eta, justifikatua dago agindua ematea hurrengo ikasturtean goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa emateko prozedura administratibo funtsezkoak berrabiarazi eta has daitezen.

Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 20. artikulua eta Unibertsitatearen Estatutuen 40. artikulua emandako eskudantziez baliatuz (6/2002 Lege

Organikoa 2007ko apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu zuen, eta Estatutuak 2003ko maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren eta Nafarroako Gobernuak 2011ko maiatzaren 21eko Erabakiaz aldatu).

EBAZTEN DUT:

LEHENBIZIKOA.- Prozedura administratibo hauek berrabiatzea:

Irakaskuntzako Errektoreordetza:

2019-2020 ikasturte akademikoko matrikulari espresuki uko egiteko prozedura: irekitako prozedura administratiboa itxi.

2020/2021 ikasturteko masterreko ikasketa ofizialetan sartzeko aurreinskripzio prozedura.

Nazioartekotzeko eta Lankidetzako Errektoreordetza

Talentua Erakartzeko Beken deialdiak eta Doktoretzarako aukera ematen duten masterreko ikasketa ofizialak egiteko 8 laguntzaren deialdia, “Asociación Universitaria Iberoamericana de Posgrado (AUIP)” delakoan afiliatutako unibertsitate latinoamerikarretako ikasleentzat.

Ikerketako Errektoreordetza:

Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileak kontratatzeko deialdia

Ikasleen Gaietarako, Enpleguko eta Ekintzailtzako Errektoreordetza:

Unibertsitatez edo ikasketaz aldatu eta gero ikasle espainiar zein atzerriarrak 2020/2021 ikasturtean onartzeko prozedura.

Unibertsitatera sartzeko prozedurak, 25, 40 eta 45 urtetik gorako ikasleentzat, 2020/2021 ikasturterako.

BIGARRENA.- Honako prozedura administratiboen hasiera, instrukzioa eta ebazpena erabakitzea:

Ikasleen Gaietarako, Enpleguko eta Ekintzailtzako Errektoreordetza:

Unibertsitatean Sartzeko Ebaluazio probetan inkripzioa egiteko prozedura (heldu den ekainean eginen baitira).

2020-2021 ikasturterako matrikula, Unibertsitateak ematen dituen irakaskuntza guztietarako.

Ikerketako Errektoreordetza:

Ikerketa proiektuen edo transferentzia kontratuen kargura ikertzaileak kontratatzeko merezimendu-lehiaketen deialdiak, agindutako betebeharrak bete ahal izateko beharrezkoak direnean.

Irakasleen Gaietarako Errektoreordetza:

Merezimendu bidezko lehiaketa arrunterako deialdia, irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko, heldu den 2020-2021 ikasturtean irakasle ari daitezen.

Kudeatzailetza


Dei-prozedura, administrazio eta zerbitzuetako langileak kontratatzeko zerrenden bidez, edo, beharrezkoa balitz, kontratazio-prozeduren deialdia, premia urgentziazkoak betetzeko.

HIRUGARRENA.-Prozedura administratiboak berriz abiatzeak eta hasteak tramite guztiei eragiten die, baita egin litezkeen erreklamazio eta errekursoei ere.

LAUGARRENA.- Ebazpen hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

BOSGARRENA.- Ebazpen honek 2020ko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 4. apartatuaren ezarritakoa du babes (2020ko martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuaren erredakzioan), administrazio bidea agortzen du, administrazio bidea agortzen du, eta bere aurka zilegi da berraztertze errekursoa aurkeztea, Unibertsitateko errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekursoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren maila bereko epaitegiei zuzendua, bi hilabeteko epean, biak ere Ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktatzen hasita.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 18an



RAMÓN GONZALO
ERREKTOREA